

ORGANIZAZIOAREN ERABAKIA

PSE-EEren VI. Biltzarra

SARRERA.....	1
BARNEKO DEMOKRAZIA ETA ANIZTASUNA.....	2
KARGU PUBLIKOAK.	3
GIZARTE MUGIMENDUAK.....	4
AFILIATUAK ETA JARRAITZAILEAK	5
ALDERDIAREN EGITURA.	6
Udal edo Barrutiko Egitura	6
Hiri Handietako Egitura	7
Alderdi indartsua hiri handietan.....	7
Probintziako Egitura.....	7
Probintziako Batzorde Betearazlea	7
Probintzia Batzordea	8
Euskal Sozialisten Egitura.....	8
Euskadiko Batzorde Betearazlea.....	8
Batzorde Nazionala	9
Arlo Egitura	9
Arlo Organizazioak.	9

SARRERA

Euskal Sozialistok Gobernu alderdi izanik ekingo diogu hurrengo Biltzarrari eta azpimarratzekoa da geure merituei esker iritsi garea honaino. Batzuetan bakarrik geratu garen arren uneoro gure proiektu, ideia eta printzipioak mantentzen jakin dugulako, herrialdearen zentzua eta euskal gizartearen oinarriko interesak barneratu ditugulako, izan ere, haiek izan baitira azkenik Euskadin buruzagitza politikoan aritzea ahalbidetu digutenak.

Gaur Euskadin berrikuntza Gobernu sozialista bat dugu horren guztiaren atzean alderdi handi bat dagoelako, Euskadiko Alderdi Sozialista, hain zuzen. Zailtasunen aurrean hazten jakin du, uneoro aurrean izan dituen erronkei aurre egin die eta beti egon da errealitatearekin lotuta; baita Euskadin hain beharrezkoa zen aldaketa ahalbidetu duten gizarte eragileekin ere.

Sinesmen sendoak dituen alderdia da hau, beti egon da terrorismoaren kontra borrokatzen eta askatasunak, autogobernua eta Euskadi soziala defendatzen. Akordioak lantzeraz, ekimenei heltzeraz eta herrialde eta gizarte gisa aurrera egiteko irtenbideak bilatzera ohituta dagoen alderdi bat da.

Gure alderdia gero eta lotuago dago euskal herritarren benetako nahiekin eta ondorioz, jendearekiko gero eta hurbiltasun gehiago du.

Hala ere, etorkizunean nolako alderdia izan nahi dugun ere definitu behar dugu. Neurri handi batean guztiontzako ezezaguna den egoera honen erronkei erantzuteko nola prestatuko garen zehaztu behar dugu.

Izan ere, aurrerantzean gehiago exijituko digute eta guregan uste osoa duen gehiengo sozialaren itxaropenei erantzuten jakin behar dugu, ezin baitiegu huts egin.

Gizartearentzako alderdi eraginkorra izan behar dugu. Uneoro herritarren kezka, itxaropen edo ondoezaren arrazoiak antzematen jakin behar dugu.

Arazoei aurrea hartzen jakin behar dugu. Erakundeetan nahiz gizartean gehiengoa benetan kezkatzen duten gaien inguruko eztabaidak sustatzen jakin behar dugu.

Gobernu honetan, herrialde honetan, euskal gizarteak behar duena da Euskadiko Alderdi Sozialistak gure gizarte anitzaren sinergiaz baliatuz erantzun eraginkor bat emateko gai den indar eta kemen politikoa izatea.

Alderdiak indartsu bihurtu duten elementuak mantendu behar ditu: bere espiritu demokratikoa, bere zentzu kritikoa eta bere eztabaida sakona, alegia.

Elkarrekin, gure printzipioak, gure ilusioa eta gure konpromiso militantea mantenduz, betidanik izan garen alderdi bikaina izaten eta horrela jokatzeko jarraituko dugu: une latzetan nahiz garai onetan, Gobernuan nahiz oposizioan.

Bakearen, Askatasunaren eta herritarren eskubideen alderdia izaten jarraituko dugu. Elkarriketaren, adostasunen eta gizarte politiken alderdia. Herrialdea bere interes partikularren aurretik jartzen duen alderdia.

Gure herrialdean gero eta ugariagoa den gehiengoaren ispilu izaten jarraituko dugu.

BARNEKO DEMOKRAZIA ETA ANIZTASUNA

Euskal Sozialistok betidanik defendatu dugu alderdiaren barneko funtzionamendu guztiz demokratikoa, izan ere, gure ustez alderdia benetako barne demokrazia gauzatzen duten irizpideekin antolatu behar da, gure militante guztien artean benetako berdintasuna egon dadin, guztiok baikara beharrezkoak eta erantzuleak proiektu sozialista honetan eta egunero egiten baitugu lan proiektuaren alde.

Gure Alderdia, gure zuzendaritza organoak eta gure udal eta barruti talde guztiak eztabaidara, parte-hartzera eta ideia eta pertsonen berrikuntzara irekita egotea aldarrikatzen dugu, gizarte sektore aurrerakoiak, immigranteen taldeak eta, batik bat, gazteak gizartea eraldatzeko proiektuan barne hartzeko gai izan nahi dugu. Gure alderdiak bere antolamendu maila guztietan gizarteko aniztasuna islatzea nahi dugu, baina ez soilik gure militantzian, baita gure gizarte eta hauteskunde oinarrian ere.

Alderdi Sozialistak askatasun eta eskubideen alderdi izan behar du. Barneko aniztasuna errespetatu behar du eta Euskadin herritar aurrerakoien nahiak bereganatzeko bideak ezarri behar ditu.

Alderdiaren organo betearazleak zerrenda blokeatu eta itxien bidez eta gehiengoaren sistemaren bidez hautatuko dira eta berdintasuna bermatuko da.

Eztabaida eta kontrol organoak zerrenda itxiekin, ordezkapen proportzionaleko sistemaren bidez hautatuko dira eta sistema hori aplikatuko zaie gutxienez botoen % 20 lortzen dituzten hautagaiei.

Biltzar arteko organo nagusiek afiliazioaren kontsultara eraman ahalko dituzte egokitzat jotzen dituzten auziak eta lotesleak izango dira.

Proposamen horiek guztiek bi helburu nagusi izango dituzte: gure Alderdiaren barruko demokrazia areagotzea eta sozialiston proiektu eraldatzaileak gaur egun Euskadin dugun gizarte anitzarekin lotura gehiago izatea, proiektua bertan gauzatu behar da eta.

KARGU PUBLIKOAK.

Politika zerbitzu publiko bat da. Ordezkarri publikoak herritarrek berengan duten uste onagatik dira ordezkarri. Kargu publiko batean ordezkarri gisa aritzeko lana balorerik onenetan oinarritu behar da, gardentasun osoz eta hutsik gabeko gizalegezko jarrera demokratikoarekin jardun behar da.

Alderdiak garrantzi berezia eman behar dio erakundeetan gauzatzen duen lanari, izan ere, erakunde horiek gizartea eraldatzeko instrumentua izateaz gain, erabakigarriak dira herritarrek Alderdiaren inguruan duten irudirako. Hori dela eta, gure kargu publikoek kudeaketa ahalmena izateaz gain, herritarrekiko hurbiltasunetik, sozialiston jokabide eta ideiekin bat datorren irudia eskaini behar dute.

Alderdiako organizazioek kargu publikoen lana hauteskunde-programaren jarraipena egiteko bileren bidez zuenean ebaluatzeko gaitasuna izan behar dute. Kargu publiko sozialistek organo eskudunen aurrean beren kudeaketa lana azaldu beharko dute eta herritarrei haien kudeaketaren eta eragiten dieten erabakien berri eman beharko diete.

Alderdiaren zuzendaritza organoek, lankide bakoitzak erakundeetan egin behar duen lana errespetatuz, hauteskundeetan proposatutakoa betetzeko eta erakundeak behar bezala kudeatzeko lan egingo dute.

Probintziako eta Euskadiko Batzorde Betearazleak erakunde politiken artean koordinazioa lortzen eta erakunde bakoitzean garatzen ari diren politiken inguruko informazioa eta esperientzia trukatzeko saiaturik dira, horrela, beste esparru batzuetan aprobetxatu ahal izateko eta aplikatzen diren politiken artean desadostasunik edo kontraesanik egon ez dadin.

Probintziako eta Euskadiko Batzorde Betearazleek Etengabeko Prestakuntza Plan bat koordinatuko dute kargu publiko guztientzako erakunde bakoitzean dituzten zereginetan laguntzeko.

Alderdiako kargu publikoen aukeraketak hautagaien gaitasun eta merituetan egon behar du oinarrituta eta horrez gain, beren kanpo proiektzioa eta barneko ordezkaritza kontuan hartu beharko dira.

Batzorde Betearazleek gure Estatutuetan jasotakoa betetzen dela ziurtatzeko lan egingo dute. Horretarako, erakunde nahiz organoetako karguentzako muga bat ezarriko dute eta militante berrien lankidetzari bide emango diote, izan ere, beren ekarpenekin talde sozialista aberastuko dute, zalantzarik gabe, eta organo, politika eta kudeaketa karguen pilaketa mugatuko da erakunde eta organo maila desberdinetan.

GIZARTE MUGIMENDUAK

PSE-EEK herritarren mugimenduetan esku hartu nahi du, gizabanako bakoitzaren esparrua gainditzen duten eta guztion intereserako diren helburuak erdiesteko. Gizartea barne hartuz, politiken zilegitasuna areagotuko da eta hori mesedegarria izango da gobernuan edo oposizioan lan egiteko, ordezkari agintetik datorren zilegitasunak bat egiten baitu herritarrekin zuzeneko harremana eta kontaktua izatetik datorrenarekin eta zilegitasun biek bat egiten dutenean, bide onetik goazela ikus dezakegu.

Euskadira immigrante ugari iristen da eta PSE-EErentzako (PSOE) garrantzitsua da haiekin kontaktatzea, beren ordezkari izatea eta beren kezkei erantzutea. Euskadiko Batzorde Betearazleak gure egoitzen funtzionamendua hobetzeko Plan bat sustatuko du. Plan horrek, besteak beste, immigranteentzako irekita egotea barne hartuko du, horrela, nahi badute Alderdira sartu ahal izateko edo sortzen dituzten edo sor ditzaketen elkarteekin lankidetzak hitzarmenak egiteko.

Alderdiak gizarte mugimendu eta GKE guztietan militantzia eta presentzia izan behar du, haien ahotsa diren eta gizartearen benetako eskakizunak eta esperientzia transmititzeko gai diren pertsonak, alegia. Hori baita benetako proiektu politiko bat lantzeko modu bakarra, eta kohesioz eta oportunistorik gabe egiten badu, proiektu orokor bat izango da, arlo desberdinetako eskaerak barne hartzen dituen, lehentasunak ezartzen dituen eta helburu partikularrak helburu orokorren barruan hartzen dituen.

Beraz, gizarte mugimenduekin lotura ezarri behar dugu; eskaera berriei ahotsa eman behar diegu. Mugimenduak eta elkarteak ezin ditugu alderdiaren adar potentzial gisa ikusi, sozialistontzako parte-hartze politikoko esparru gisa baizik. Alderdiak gizarte mugimendu eta GKEen jarduerak bultzatu eta babesten dituen kultura sortu eta hedatu behar du.

Beharrezkoa da gizarteko hainbat plataformarekin lankidetzan aritzea, adibidez, solidaritaterako plataformekin, giza eskubideen defentsan dihardutenekin, bazterkeriaren kontra lan egiten dutenekin, LGTB kolektiboekin, parte-hartzeekin, gutxietsitako pertsonen eta herrialdeen

garapenerako lankidetzan aritzen direnekin, ingurumena eta natura babestearen alde lan egiten dutenekin, etab.

Gure proiektuarekin bat datozen sindikatuekiko harremanak sendotu behar ditugu, baina beti ere, beren autonomia errespetatuz eta jarrera harkor eta motibatzailearekin.

Gainera, aipatzekoa da gizarteko organizazioetan eta GKEetan parte hartzea gazteriaren espazio publikoan sartzeko bide ia naturala dela. Mugimendu eta elkarte horietan presentzia eta elkarrizketa izatea beharrezkoa da gazteak, organizazio horietan esperientzia izanik, Alderdi Sozialistaren afiliatu bihurtu ahal izateko.

AFILIATUAK ETA JARRAITZAILEAK

Norbere borondatez Euskadiko Alderdi Sozialistara afiliatzeak txartel bat lortzea baino gehiago esan nahi du. Berrikuntza proiektuan parte hartzeko eta laguntzeko aukera bat da.

Organizazioak sinesgarritasuna izateko, gizarteko esparru guztietan afiliatuak eta jarraitzaileak eduki behar ditu, izan ere, beren sentsibilitateak eta beren arazoak islatzen dituzte, eta gainera, gizartean gure proposamenei ahotsa jartzen diete.

Afiliatuek Alderdiaren barruan nahiz kanpoan gure ideiak garatzeko motibazioa eta bideak aurkitu behar dituzte, gure eguneroko jardura politikoaren motorra baitira, eta hurbiltasuna, konfiantza eta sinesgarritasuna adierazi behar dute gure politikan defendatzean.

Hori dela eta, alderdiak afiliatuei eztabaidetan parte hartzea eta proposamen berriak kudeatzea errazteko mekanismoak eskainiko dizkie.

Azken urteotan gertatutakoa ikusirik, proiektu sozialistarekin politikoki nahiz ideologikoki identifikatzen diren pertsona askok PSE-EEren jardura eta ekimen batzuetan parte hartu nahi duten arren, ez dutela militante bihurtu nahi esan daiteke.

JARRAITZAILE izateko aukera eskainiz, gure ekintza politikoa, gure programak eta Espainiako gizarteari egiten dizkiogun proposamenak hobetu nahi dituzten eta horretarako prest dauden herritarrei atak irekiko dizkiegu.

Arrazoi profesionalen ondorioz nahiz interes pertsonalagatik gai jakin batzuetan gure Alderdiarekin lan egin nahi duten herritar askoren ezagutza, ekarpenak eta ideiak barne hartzea ezinbestekoa da ezkerreko baloreetan oinarrituta dagoen, baina osaketa anitzekoa den proiektu bat osatzeko eta proiektu hori gure gizartean hain azkar gauzatzen diren

berrikuntzetara irekita egoteko eta gure garai historikora egokitutako erantzunak emateko borondatea barne hartzeko.

Hori dela eta, garrantzitsua da JARRAITZAILEaren irudia indartzea, izan ere, horixe dira militanteak izan ez arren, proiektu sozialistarekin identifikatuta sentitzen diren eta lagundu nahi duten pertsonak.

JARRAITZAILE bihurtzeko eskakizun bakarra lankidetzan aritzeko borondate aktiboa mantentzea eta esparru organikoko erregistro batean izena emate da, horrela, jarduera, bilera eta abarren inguruko informazioa lortzeko.

PSE-EEren jarraitzaileek ondoren zerrendatzen diren eskubide hauek dauzkate:

- Interesgarri iruditzen zaien informazioa lortzeko eskubidea, baita beren jarduera politikoa garatzeko behar duten prestakuntza jasotzeko eskubidea ere.
- Arlo Organizazioetan eta horien eztabaida eta proposamenetan parte hartzeko eskubidea.
- Alderdiaren bilera eta eztabaida irekietan parte hartzeko eskubidea.
- Hauteskunde primarioen bidez gauzatzen diren barne-hauteskundeetan kontsultatua izateko eskubidea.
- Gai zehatzetarako sortzen diren lan- eta aholkularitza-taldeetako kide izateko eskubidea.

ALDERDIAREN EGITURA.

Udal edo Barrutiko Egitura

Udal edo Barruti Taldea oinarrizko militantzia unitatea da eta gure afiliatuei Alderdiaren bizitza organiko eta politikoan parte hartzeko aukera eman behar die.

Horrez gain, militanteek elkarte gisa gizarteko arazo, aldarrikapen, gatazka eta, egokia denean, mobilizazioetan esku hartzeko tresna politikoa da. Beraz, Taldeak Alderdiak gizartean jarduteko duen oinarrizko instrumentu izan behar du.

Beraz, Udal edo Barruti Taldeak izaera bikoitza du: barnekoa, Alderdiaren organizazioaren oinarrizko zelula gisa, eta kanpokoa, herritarrekiko hurbiltasun gehiago duen egitura gisa.

Horrez gain, esan bezala, gizartearen mobilizazioa gizarte zibilera eraman da ekintza politikoa bera gainditzen duten eskaeren inguruko organizazioekin eta gizarte mugimenduekin.

Hori dela eta, beharrezkoa da barne esparruko eta organizazioko erreformetan sakontzea gizartearekin gehiago lotzeko balio duten ekimenak sustatu eta babesteko, eta horrela, militante bakoitza garai berri honetan duen paperaren garrantziaz ohar dadin. Afiliatu eta jarraitzaileei buruzko atalean esan bezala, erreforma horietan bereziki garrantzitsua izango da prestakuntza, informazioa eta parte-hartzea, eta instantzia guztietan dituzten betebeharrak beren gain hartzea.

Taldeen bizitza dinamizatu behar dugu, beren egiturak inguruaren beharretara egoki daitezen eta militantzia prestatzeko lanari berriz ekin diezaioten, jardunaldiak, mintegiak eta eztabaida itxi nahiz irekiak antolatuz ideien motor gisa arituz.

Horrez gain, garrantzitsua da udalerrri txikiak eta hiri handiak ongi bereiztea.

Hiri Handietako Egitura

Alderdi indartsua hiri handietan

PSE-EEK Oinarrien Legean xedatutakoaren arabera herritar asko dauzkaten eta hiriko egitura organikorik izan ez arren tokiko taldeak dauzkaten udalerrri guztietan Udal taldeak eratuko dira.

Udal Talde horiek kasuan kasuko hiriko administrazio dibisioari dagozkion Barruti Taldeek osatuko dituzte eta organo betearazleak, kontrolerako organoak, Udal Batzorde Betearazlea eta Udal Batzordea izango dituzte.

Probintziako Egitura

Probintziako Batzorde Betearazlea

Probintziako Batzorde Betearazleak zeregin politiko eta publikoa izan behar ditu, baina horrez gain, organo betearazlea eta ondorioz, kudeatzailea ere izan behar du, gobernatu behar du, eguneroko politikak erabaki behar ditu, solidarioki kideen artean. Hori dela eta, osoki politikoa den osagarri bat, ordezkari bat eta koordinazio osagarri bat izateaz gain, Eremuko Idazkaritzak izan behar ditu, baita Probintziako Biltzar bakoitzean erabakiak hartzen dituzten kideak ere.

Eremuko Idazkaritza bakoitzak zeregin eta ardura jakin batzuk izango ditu eta horien erantzule izango da Probintziako Batzorde Betearazlearen eta Probintziako Batzordearen aurrean. Zeregin horiei erantzuteko, Idazkaritza bakoitzak Babes Talde batzuk izan beharko ditu, nagusiki

Alderdiaren sektore egituran oinarrituz, horrela, lana hobeto egiteaz gain, Alderdiaren jardueran ahal beste pertsonak parte har dezaten.

Probintziako Batzorde Betearazleek, Euskadiko Batzorde Betearazlearekin batera lan eginez, Tokiko Taldeak hedatu, modernizatu eta dinamizatzeko plan bat garatuko dute, baita Alderdiaren egoitzetako apainketa eta izendapen guztien homologazio plan bat ere.

Halaber, Probintziako Batzorde Betearazleek eremuko Talde eta Afiliatu guztiei egokitzat jotzen duten laguntza politiko eta tekniko guztia eskainiko diete eskualde guztietan.

Arazoak, gizartearen benetako errealitatea, kultura, geografia eta ekonomia kontuan izanik eta eskualdeetan herritarrekiko hurbiltasuna mantentzeko, koordinazio dinamikak sor litezke eskatzen duten eta arazo eta esparru geografiko bera duten Taldeen arteko eskualde politikarako.

Probintzia Batzordea

Probintzia Batzordeak, probintzietako biltzarretan Alderdiak duen zuzendaritza organo gorena izanik, organo politiko eta kontrolerako organo gisa dituen zereginak sustatu behar ditu eta hori, arina eta eraginkorra izatea ahalbidetzen duen egitura dinamikoarekin egin behar du.

Probintzia Batzordeko kideek bertan eztabaidatzen diren gai eta erabakien berri emango diete Udal Taldeei eta Arlo Organizazioei.

Probintziako Batzordeak, egokitzat jotzen badu, batzordearen barruan komisioak antolatu ahalko ditu bere zeregina garatzeko.

Euskal Sozialisten Egitura

Euskadiko Batzorde Betearazlea

Afiliatuek eta gizarteak berak Euskadiko Batzorde Betearazleari eskatzen diotena zuzendaritza politikoa, jarduera politikorako irizpideak eta lurralde koordinazioa da. Beraz, politikoki sendoa izan behar du, politikak ezarri behar ditu, erakunde eta organo jarduera komunak koordinatu behar ditu eta xedek ezarri behar ditu. Bertan, probintziako buruzagiek ordezkaritza izan beharko dute.

Euskadiko Batzorde Betearazleak Euskadiko Alderdiaren irudi publikoari dagozkion jarduera urratsak zehaztuko dituzten irizpide politikoak ezarriko dituzte.

Batzorde Nazionala

Batzorde Nazionalak, Alderdiak biltzarretan duen zuzendaritza organo gorena izanik, organo politiko eta kontrolerako organo gisa dituen zereginak sustatu behar ditu eta hori, arina eta eraginkorra izatea ahalbidetzen duen lan dinamikaren bidez egin behar du.

Batzorde Nazionaleko kideek bertan eztabaidatzen diren gai eta erabakien berri emango diete Arlo Organizazioei eta Udaletako Taldeei.

Batzorde Nazionalak, egokitzen jotzen badu, Batzordeak antolatu ahalko ditu bere zeregina garatzeko.

Arlo Egitura

Arlo Organizazioak.

Arlo Organizazioak Euskadiko Alderdi Sozialistaren afiliatu eta jarraitzaileek esparru bakoitzari dagozkion gaiekin lotutako informazio, eztabaida eta proposamenen inguruko lanetan zuzenean parte hartzeko egiturak dira.

Beren helburua interesdun guztiek loturagatik, beren lanagatik nahiz parte hartzeko gogoagatik arlo lanean parte hartzea erraztu eta sustatzea da, baita herritarren jarduera esparru guztietan presentzia eta zuzeneko informazio trukea bermatzea eta horien proposamenak eta iradokizunak bideratzea ere. Beren lanari jarraitasuna emateko, aldizka batzartuko dira eta bilera kopurua ez dute ekitaldi batzuek (adib. hauteskundeek, biltzarrek...) baldintzatuko.

Euskadiko Alderdi Sozialistak ondorengo sei Arlo Organizazio hauek sustatuko ditu: ([Hezkuntzaren esparruko Arlo Organizazioa](#), [Ingurumen esparruko Arlo Organizazioa](#), [Herritarren Parte-hartzearen esparruko Arlo Organizazioa](#), [Osasunaren esparruko Arlo Organizazioa](#), [Informazio Gizartearen esparruko Arlo Organizazioa](#), [Ekintzaile eta Gizarte Ekonomia eta Langile Autonomoen esparruko Arlo Organizazioa](#).)

Arlo Organizazioek analisiak eta proposamenak Alderdiaren Zuzendaritza Organoei bidali ahalko dizkiete eta ekarpenak eginez, Alderdiaren programa politikoak eta hauteskunde programak lantzen lagundu ahalko dute.

Afiliatuek Probintziako esparruan parte hartuko dute zuzenean. Esparru nazionalak nagusiki beheragoko mailen koordinazio, aholkularitza eta babes izaera izango dute.

Probintziako Batzorde Betearazleetako Sail Idazkaritzek sustatuko dituzte Arlo Organizazioak. Sail bakoitzeko arduradunak izango dira beren arloa antolatuko dutenak, eta horretarako, Alderdiaren antolamendu esparruaren babesa izango dute eta Organizazioaren Idazkaritzak koordinatuko ditu.